LEHIAKETAK-CONCURSOS / MUSEOS-MUSEOAK / SAGASTIA-MANZANAL

# “Sagastiak loretan eta ardiak larretan” argazki lehiaketa Facebook-en.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 23/04/2015 • 9:52 1 Comentario



**Sagasti eta belazeek eskaintzen diguten paisaia zoragarriez gozatzeko unea da Sagardoaren Lurraldea eta Idiazabal Lurraldeetako baserri inguruetan: sagastiak loretan daude, belazeak udaberri kolorez jantzita, ardiak larretan…**

Hala, **“Sagastiak loretan eta ardiak larretan” argazki lehiaketa martxan jarri dugu Sagardoetxea, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa eta D’Elikatuz museoetako Facebook orrieta**n. Parte hartu sagardo eta gazta loteak irabazteko aukera izango duzu!

**Lehiaketaren oinarriak**:
1.- Lehiaketa Sagardoetxea, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa eta D’Elikatuz museoetako Facebook orrietan martxan egongo da apirilaren 23tik maiatzaren 24ra bitartean:
www.facebook.com/sagardoetxea
www.facebook.com/igartubeiti
www.facebook.com/pages/Delikatuz/314829484189
www.facebook.com/pages/Idiazabal-Gaztaren-museoa/219109381436758
2.- 18 urtetik gorako, edozein nazionalitateko eta herrialde guztietako pertsonek parte-hartu ahal izango dute lehiaketan.
3.- Lehiaketan parte-hartzeko, argazkia Sagardoetxea, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa edo D’Elikatuz museoetako Facebook orrietako “Sagastiak loretan eta ardiak larretan” lehiaketara igo behar da.
4.- Argazkiek gutxienez 850 pixeletako erresoluzioa izan behar dute alderik handienean eta argitaratu gabekoak, jatorrizkoak eta lehiaketarik irabazi gabekoak izan behar dute.
5.- Nahi adina argazki igotzeko aukera dago, baldintza bakarrarekin: gaitzat baserri ingurunea, loretan dauden sagarrondoak eta larretako ardiak dituen argazkiak soilik onartuko dira. Gaiarekin bat ez datozela ikusten diren argazkiak, ezabatu egingo dira eta manipulatuak eta jatorrizkoak ez diren argazkiak lehiaketatik kanporatuko dira.
6.- Argazkiak igotzeko epea maiatzaren 24ean amaituko da. Epea amaituta, Sagardoetxea, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa edo D’Elikatuz museoek, bere Facebook orrietan botu gehien lortu dituzten 3 argazkien artean bere irabazlea hautatuko du.
7.- Sariak: gazta eta sagardo loteak.
8.- Lehiaketaren irabazleak Facebook-eko orrialdeetan argitaratuko dira.
9.- Lehiaketan parte-hartzen duten argazki guztiek, Internet-eko erreprodukziorako eskubideak lehiaketaren antolatzaileari emango dizkio eta bere orrialde, sare sozial eta blog-ean erabili ahal izango ditu argazkiaren autorea aipatzeko konpromisoa hartuz.
10.- Lehiaketa honetan parte-hartzeak oinarriak onartzen direla esan nahi du.

**Lehiaketan parte-hartzeko esteka**:
http://basicfront.easypromosapp.com/p/190703

**Tags:** argazki lehiaketa, concurso de fotos, D'Elikatuz, Facebook, Gaztaren Interpretazio Zentroa, Igartubeiti, manzanos en flor, Sagardoetxea, Sagastiak loretan

*Anterior post*
III. Sagastiak Loretan de Usurbil.Usurbilgo III. Sagastiak Loretan.

*Siguiente post*
La sidrería Petritegi presentó la sidra ‘Shacksbury Basque Cider’ en Boston.Petritegi sagardotegiak ‘Shacksbury Basque Cider’ sagardoa aurkeztu du Bostonen.

## 1 comentario

## Sagardoaren Lurraldea

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
**info@sagardoarenlurraldea.com**
**www.sagardoarenlurraldea.com**

**RSS Feed**
**Twitter**
**Facebook**

## Buscar / Bilatu

## Categorías

**Agenda-Agenda**
**Azokak-Ferias**
**Ekitaldiak-Eventos**
**Errezetak-Recetas**
**Esperientziak-Experiencias**
**Formazioa-Formación**
**Gastronomia-Gastronomía**
**Historia-Historia**
**Kultura-Cultura**
**Lehiaketak-Concursos**
**Museos-Museoak**
**Prentsa-Prensa**
**Sagarra-Manzana**
**Sagastia-Manzanal**
**Sidra-Sagardoa**
**Sidrerías-Sagardotegiak**
**Sin categoría**
**Turismoa-Turismo**

## Post Recientes


Sagarrondoak udaran zaintzeko ikastaroa.


4. Ilarraren Jardunaldiak Astigarragan.


“Markesaren alaba eta Luixen istorioa” Sagardoetxean.

M. PETRUS says:
M j, Y

Responder

Por favor se podria traducir las bases del concurso al menos al ingles para que puedan enterarse y participar gente de afuera de “Spain”.

Eskerrik asko

MP

## Tu comentario / Zure komentarioa

**Nombre** *requerido*

**Email** *requerido*

**Web**

**Enviar**



Udajolas 2015 Sagardoetxean.




Usurbilgo XXXIV. Sagardo Eguna igandean, maiatzak 17an.

## Comentarios recientes

**Sagardoaren Lurraldea** en **Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.**

**Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch** en **Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.**

**Sagardoaren Lurraldea** en **“Sagastiak loretan” ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.**

Marisa en **“Sagastiak loretan” ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.**

m. petrus en **“Sagastiak loretan eta ardiak larretan” argazki lehiaketa Facebook-en.**